

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

5312

EBAZPENA, 2023ko azaroaren 8koa, Arrantza eta Akuikulturako zuzendariarena, zeinaren bidez Arrantzako Kapitainaren titulazioa lortzeko azterketetarako deialdia egiten baita 2024rako, martxoaren 10eko 449/2020 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera; errege dekretu horrek aldatu egiten du Arrantza-sektoreko titulu profesionalak arautzen dituen urtarrilaren 24ko 36/2014 Errege Dekretua, betekizunak eta ondorioak modernizatzeko xedez.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren 18. artikuluan ezarritakoaren arabera, Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzari dagokio nabigazio eta arrantzako lanbide-gaikuntza sustatzea, eta eskumen horren arabera, eta Arrantza Sektorako Titulu Profesionalak arautzen dituen urtarrilaren 24ko 36/2014 Errege Dekretua aldatzen duen martxoaren 10eko 449/2020 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, haren betekizunak eta ondorioak modernizatzeko xedez, honako hau

EBAZTEN DU:

Azterketa teorikoetarako 2 deialdi ezartzea, 2024an zehar egin beharrekoak, ondoren aipatzen den Arrantzako Kapitainaren titulazioa lortzeko:

1. deialdia.– Ohikoa eta irekia: 2024ko martxoa: martxoaren 4tik (astelehena) 8ra (ostirala).
2. deialdia.– Ohikoa eta irekia: 2024ko urria: urriaren 14tik (astelehena) 18ra (ostirala).

Azterketen data zehatzak Blas de Lezo LHII - Pasaia institutuaren iragarki-taulan eta blasdelezoescuelanautica.com webgunean iragarriko dira, azterketak egin baino astebete lehenago behintzat.

Deialdiak honako hauen arabera egingo dira:

DEIALDIAREN OINARRIAK

Lehenengoa.– 1.– Azterketak Pasaian (Gipuzkoa), Blas de Lezo LHIIIn egingo dira.

Halaber, azterketa guztiak horretarako eraturako epaimahaiak ebaluatuko ditu. Epaimahaia eratzeko, ebazpen honen 5. oinarriak xedatutakoa eta otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuak zerbitzuko arrazoiak direla-eta eman beharreko kalte-ordainei buruz xedatutakoa hartu behar da kontuan.

2.– Azterketak egungo programetara egokituko dira, martxoaren 7ko APM/243/2018 Agindua-
ren arabera, zeinaren bidez garatzen baita 36/2014 Errege Dekretua, urtarrilaren 24koa, arrantza
sektoreko titulu profesionalak arautzen dituena.

3.– Eskabideak Pasaian (Gipuzkoa), Blas de Lezo LHII - Pasaia institutuaren idazkaritzan
bete beharko dira.

4.– Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko
3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betez, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Inguru-
men Sailak adierazten du eskabideetako datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko
direla, erabiltzeko. Nahi izanez gero, eskatzaileak eskubidea izango du datuak eskuratzeko,

2023ko azaroaren 27a, astelehena

zuzentzeko, ezeztatzeko eta datuen aurka egiteko, legeak aurreikusi bezala. Horretarako, idazki bat bidali beharko du Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzara (Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), erabilpen horren arduradun den heinean.

Eskabidea formalizatu ondoren, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia, bizileku-txartela edo indarrean dagoen pasaportearen.
- Alturako arrantzako patroia, alturako patroia (Arrantza) titulua edo titulu hori eskatu izanaren gordekina.

5.– Halaber, izangaiek ondoren azaltzen diren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia, bizileku-txartela edo indarrean dagoen pasaportearen eraman beharko dituzte azterketa teorikoetara.

6.– Eskabideak honako epe hauen barruan aurkeztuko dira:

- 1. deialdia, 2024ko martxoan: 2024ko otsailaren 12tik 23ra.
- 2. deialdia, 2024ko urrian: 2024ko irailaren 23tik urriaren 4ra.

7.– Azterketetan parte hartzeko dokumentazioa Pasai San Pedroko (Gipuzkoa) Blas de Lezo LHIn entregatu ahal izango da.

8.– Azterketa aurkeztu ezean, matrikula ezin izango da hurrengo deialdi baterako aldatu, tartean oso arrazoi larriak ez badira behintzat (arrazoi horiek epaimahaiaren aurrean behar bezala frogatu beharko dira).

Bigarrena.– Azterketak baloratuko dituzten epaimahaiak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Arrantza eta Akuikulturako zuzendariak izendatuko ditu.

Hirugarrena.– Epaimahaietako buruek zentro aztertzaile bakoitzeko iragarki oholean agerraraziko dituzte deialdi eta titulazio guztietako azterketen data, deialdi honetan ezarritako epeetan, eta lehenengo oinarrian ezarritakoa ere betez. Era berean, behar den denborarekin, zentro bakoitzeko iragarki-oholean, titulazioetako bakoitzaren azterketa-orduak, epaimahai aztertzaileen osaera eta onartuen eta baztertuen zerrendak adieraziko dituzte.

Laugarrena.– Azterketak amaitutakoan, ebazpen honetako bigarren oinarrian adierazitako administrazio-bulegoetako iragarki-oholean jarriko dira ikusgai lortutako kalifikazioen zerrendak. Izangaiek egokitzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote epaimahaiko buruari, aipaturiko zerrenda horiek jendaurrean jarri eta 5 eguneko epearen barruan. Erreklamazioak behar bezala arrazoitu beharko dira, eta epaimahaiko idazkariari bidali beharko zaizkio, NANaren fotokopiarekin batera. Datu pertsonalak, helbidea eta posta-kodea azaldu beharko dira, idatziz erantzun ahal izateko.

Azterketak 2 urtez gordeko dira, kalifikazioak irrimo bihurtzen diren unetik aurrera. Salbuespenez, berrikusi diren azterketak 3 urtez gordeko dira.

Bosgarrena.– Deialdi hau eta beronen ondoriozko egintza administratibo guztiak aurkaratu ahal izango dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/12015 Legean ezarritako modu eta kasuetan.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 8a.

Arrantza eta Akuikulturako zuzendaria,
LEANDRO AZCUE MUGICA.